


Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1997ko uzteailak 3 • 125. zka.



**Udalekuak,
gazte eta umeen topalekuak**



“Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago”

97/98 Ikasturtea

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

Alemana, Frantsesa eta Ingelesa.
Haur, gazte eta helduentzako klaseak
eta orain ere “MULTIMEDIA” Sistema eskaintzen dizuegu

Informazioa:

Araba Etorbidea, 4 Arrasate

Telf: 71 20 55

Olakua, 14 Oñati

Telf: 71 60 00



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE

TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

OPEL

Garaje T. NORTE, S.L.

Zerbitzu Ofiziala

■ *Kotxe marka guztien
konponketak*

■ *Zerbitzu guztiak*



Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 /

Fax: 79 62 65

ARETXABALETA



Zer iruditzen zaizkizu udalekuak?

Merche Vilchez

(Etxekoandrea)

Oso ondo daude. Nire semeak udaleku irekietan parte hartuko du. Beste ume batzukin erlazioatzeko ondo daude udalekuak eta modu honetan euskara ez du ahaztuko oporretan.



Antonio Colino

(Langilea)

Udan umeak entretenitzeko aukera ona da. Gurasoei ere lasaiago egoteko aukera ematen diete udalekuek. Bi umeak bidaliko ditut Ortazarrek antolatzen dituen udalekuetara.



Myriam Beltran de Heredia

(Langilea)

Umeez une atsegin bat pasa dezaten aukera ona dela uste dut. Hainbat ekintza egiten dira eta umeez gauza asko ikasten dituzte bertan. Nire semea txikia da oraindik baina gero bidaliko dut.



Estefanos Amallobieta

(Ikaslea)

Oso ondo daude. Aurten ez dut parte hartuko udalekuetan Greziara joango naizelako. Beste urte batzutan ibili izan naiz eta ondo pasatu dut.



e s k u t i t z a




Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

Udal zinegotziori

Azken boladan ohikoak bihurtzen ari dira "prebentzio kanpainak", alkoholaren kontrakoak, droga eta tabakoaren kontrakoak, eta abar... Bultzatzaileak zeharo konbentzituta daude eta gu ere bai, hauek eragin bat izan behar dutela gizaki guztiongan eta horregatik jotzen dute eskola, gaztetxe eta beste hainbat erakundeetara zabaltzeko eta lantzeko laguntza eske. Hainbeste diru gastatuaz egiten dena ondo dago baina ez da nahikoa. Kalitatezko bizitza egiteko, kanpaina bereziak baino premiazkoagoak dira pertsonak sortu eta garatu behar dituen ohiturak eta zaletasunak. Horretarako beharrezkoa da herria, Aretxabaleta, zerbitzu egokiez ornitzea: guztiondako kirol zerbitzuak, kultur eskeintzak, parkeetan ekipamendu egokiak, aisialdirako eskeintzak, liburutegi zerbitzua... Lerro hauek Liburutegiaren egoera aztertzeke balio nahi dute. Gure ustez eskeintza oso egokia izan daiteke hemendik eskeini daitekeena: egunkariak irakurtzeko, kontsultarako, ikasteko, liburuak eskuratzeko, baliabide teknologikoak

erabiltzeko... baina hau ez da Aretxabaletan gertatzen zaiguna: zerbitzu orduak lehen gutxi izanda gutxitu egin dira eta ez dugu inongo esplikaziorik jaso. Holakorik gertatzen al da Kultura ez den beste sailekin? Kezkatuta gaude gero eta erakargarriagoa izan beharko lukeen zerbitzua murrizten ari delako. Ez al duzue pentsatzen denbora asko goza daitekeela liburutegian? Ez al da hau kanpaina bereziekin lortu nahi dena? Ez dugu ulertzen benetan murrizketa hau. Horregatik zuengana zuzentzen gara murriztu ordez egin daitezkeen proposamen batzuk azalduz: egun osorako liburutegia ireki, pertsonal fijoarekin; liburuez gain medio-informatikoak eskeini; jendea erakartzeko ekintza berezi gehiago antolatu; euskal bideoteka eratu; oporretan ordutegi bereziak eta zabalagoak eskeini. Gai honekin, zuen interesa sortzea nahi genuke.

GURASOAK

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgioindo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Arantzazu Zuazabeitia, Inma Miguel, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Datorren domekan XI. pintura lehiaketa egingo da

XI. pintura lehiaketa

Datorren domekan XI. pintura lehiaketa antolatuko da Aretxabaletan. Udaletxeko kultura sailak antolatzen duen lehiaketa honetan edozeinek parte har dezake. Teknika librea izango da eta landu beharreko gaia: Aretxabaleta eta bere ingurua. Egin beharreko lanak goizeko 11etatik 9etara bitartean sinatuko dira eta sari banaketa arratsaldeko 6,30etan egingo da udaletxeko gainbaran. Epaimahaia margolari ezagunek osatuko dute.

1.go saria 50.000 pta eta trofeoa izango da; 2.ena 30.000 pta eta 3.ena 25.000 pta. Lehenengo hiru postutan

sartu ez diren atxabaltarrentzat ere egongo da saririk: 1.goa: 15.000 pta; 2.ena 10.000 pta. eta 3.ena 5.000 pta. Aurrean aipatutako sari guztientzat garaikurra egongo da.

Gaztetxoetan, hamalau urtetik beherakoetan, lehenengo eta bigarren izan direnei margolaritzako materiala emango zaie, baita herriko lehenengo haur sarituari ere (lehenengo haur sarituetan sartu ez bada behintzat).

Margo lanen erakusketa, berriz, uztailearen 7tik 20ra egingo da udaletxeko gainbaran.

Udalak bi langile kontratatuko ditu mantenimendu lanetarako

Udalak Galartzako urbanizazioa egiteko proiektua aurkeztu zuen INEMen eta honen onarpena jaso ondoren zenbait lan egiteko dirulaguntza jaso du. Horrela, INEM eta Udalaren arteko programaren barruan Udalak Galartzako urbanizazioa egiteko pertsona bi kontratatu ditu. Lan honetarako aukeratuak Angel Fernandez eta Luis Sebastian izan dira. Lau hilabetetan zehar, hau da, uztailetik urriara bitartean egun erdiz udaletxeko brigadako partaide izango dira eta mantenimendu lanak egingo dituzte.

Udalak bake epaile eta ordezkoren proposamena bidaliko du Bilboko tribunalera

Guztira lau lagun aurkeztu dira udaletxean datozen lau urtetarako bake epaile lanak betetzeko.

Horietatik ekainaren 23an egin zen plenoan Udalak Kepa Azkue proposatu zuen bake epaile eta Maria Pilar Arenaza ordezkora. Udalak proposamena luzatu badu ere, izendapena egitea Bilboko tribunalari dagokio. Udalak ez du bake epailea aukeratzeko konpetentziarik eta horregatik izendapena Bilboko tribunalak egingo du. Normalean tramite hutsa izaten da eta ez da arazorik egoten proposamena onartzeko. Bake epaile berriak irailetik aurrera ekingo dio lan berriari.

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA

Tfno 714345

Bazkari eta afariak

Astlehenetan itxita

ESKORIATZA

LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

T X I L A R R A

ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15


Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako okina



Instalazio berrian dutxak eta komunak (ezinduentzako egokitutako bat ere bai) aurki daitezke

Komun publikoak erabilerarako gertu

Ekainaren 26an berrituta zabaldu ziren herriko komun publikoak. Komunak bai astegunetan eta baita astebukaeretan ere zabalduko dira. Udaltzainak goizeko 9ak inguruan arduratuko dira zabalteaz eta Garbitu enpresak gaueko 10ak inguruan itxiko ditute ateak.

Garbiketa zerbitzurako Udalak

Garbitu enpresa kontratatu du, horrela komunak egunero garbituko dira.

Instalazio berrian, dutxak eta komunak (bat ezinduentzako) aurki daitezke.

Hori bai, aurrerantzean zerbitzua zabalik izan nahi bada, guztion lana izango da hauek ahalik eta ondoen zaintzea.

Erraminten mekanizazio eta fabrikazioari buruzko ikastaroa

Aretxabaletako Institutuak Erreminten mekanizazio eta fabrikazioari buruzko ikastaroa antolatu du mekanika adarrean. Ikastaro hau Aretxabaletako udaletxeko ekonomia garapenerako zinegotziak bultzatu du. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Lan Sailak finantziatuko du, Europako Fondo Sozialaren laguntzarekin.

Ikastaroa, profesionalki gaitu gabeko langabetuei eta langabezian denbora luzea daramatenei zuzenduta dago, batez ere, IEE, BBB, LH-1 eta LH-2-ko ikasketak egin dituztenei.

Zehaztasun haundiko erremintak egiten diren lantegietan jende gaitua eskatzen dute lanerako. Ikastaroaren helburua langileak prestatzea da. Ikasketak, bai teorikoak bai praktikoak, mekanizazio teknologia, makinak eta erreminten gainerakoak izango dira.

Izena emateko, Institutura jo behar da, uztailaren 1etik 11ra. Ikastaroa irailaren 1ean hasiko da, 500 ordukoa izango da, arratsaldez. Informazio gehiago nahi izanez gero, ondoko telefonora dei daiteke: 79 79 00.

Portasoleko jaiak gero eta gertuago

□ Aurten, Gipuzkoako lehenengo kontzertu elektronikoa, "Hermanas Ross orkestra", sokamuturra Gorbea eta Nafarroa kaleetan, eta beste hainbat ekintza.

San Lorentzoak uztailaren 18tik 20ra bitartean ospatuko dira. Beste behin ere, PAGLE, Portasol Auzoko Gazte Lagun Elkarteak, jaiak antolatzeko ardura hartu du. Egitarau zabala antolatu dute eguakotxean hasi eta domekan amaituko diren jaietarako.

Aurtengo berrikuntza nabarmenetarikoak, Gipuzkoako lehenengo kontzertu elektronikoa da. Iaz DJ bat ekarri zen jaietara eta arrakasta izan zuenez, aurten osterara antolatu da, baina kasu honetan 25 DJ etorriko dira. Bartzelonatik eta Euskal Herriko bazterretatik hurbilduko dira kontzertu hau eskainiko duten DJk. Bestelako ekintzen artean, aipatzekoa da zapatarako antolatuta dagoen Hermanas Ross orkestra. Esan beharra dago, sokamuturra aurten Nafarroa eta Gorbea kaleetan egingo dela.

Dena dela, egitarauaren berri zehatza goa hurrengo alean izango duzue.

Drogaren aurkako nazioarteko eguna

Uztailaren 4an Eskoriatzan egingo da Drogaren aurkako Nazioarteko eguna. Ondorengo ekintzak egongo dira: 6,30etan giza katea trikitilarien eta hanka luzeen laguntzaz, ondoren alkateak irakurritako manifestua, Gorosarri dantza taldea, dantza suelta, bertsolariak eta Eskoriatzako banda.

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

JOSU

HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

OSKAR

HARATEGIA
Loramendi, 1
☎ 79 71 69

San

Juan bezperari



Giro bikainean
ospatu genuen
atxabaltarrok San
Juan bezpera.

Arratsaldeko
ikuskizunek, lagun ugari
hurbildu zuten kalera eta zer
esanik ez gaekoek.

San Juan suak,
bere magikotasuna galdu badu ere,
oso errito erakargarria izaten jarraitzen du.



leup, ieup! Hori bai hori indarra.



Txokolateroa ondo dantzaten
dakite gaur egungo gazteek.



Santa Ageda mutilak larri ibili ziren
tantaia jasotzeko. Tantaia, sartu
beharreko zuloan labandu, jausi eta
bi zatitan apurtu zen. Eskerrak inor
azpian harrapatu ez zuena.
Apurtutako tantaiaik
zutik dirau
plazaren erdian.

errepasoa

Larua begibistan

Datorren urtetik aurrera, gure kaleetako irla ekologikoak partaide berria izango duela iragarri berri da. Izan ere, dagoeneko baditugun beira jasotzen duten kontenedore berde eta paperarentzako kutxa urdinei, "ontzi arinak" bilduko dituen kaxa larua gehituko baitzaie.


Halaxe da bai, datorren urtetik aurrera Aretxabaletan kontenedore larua izango ditugu berde eta urdinen alboan. Hauek "ontzi arinak" hartuko dituzte, hala nola, metalezko ontziak (latak), tetrabrik-ak eta plastikoak.

Ekintza hau Gipuzkoa mailan aurrera eramane nahi den plan orokor baten barnean dago, izan ere, probintzia osoan 1522 kontenedore ezarri nahi baitira, 500 biztanle bakoitzeko bana gutxi gora behera. Proporzio honek Europako batezbestekoa nasai gaingiduko luke, kontinentean 800 biztanleko bana baitago.

Berziklapenaren bidetik

Duela zenbait urte jadanik hain ohiko diren beira (kristala) biltzeko kontenedore berdeak ezarri ziren, eta hauen arrakasta ikusita, papera jasotzeko kutxa urdinak ere ipini zituzten.

Berri honek birziklapenaren aldeko apostua egin dela adierazten du. Izan ere, Gipuzkoan eraiki nahi zen Errauskailu



Kontenedore horiek "ontzi arinak" hartuko dituzte, metalezko ontziak (latak), tetrabrik-ak eta plastikoak.

erraldoi haren proiektua ere baztertua izan baita. Guzti honi beste hainbat ekintza ere gehitu behar zaio, hala nola, pilen bilketa, altzariena,... eta zenbait herritan trapu eta ehunena ere bai. Zoritxarrez, oraindik ere produzitzen dugun zaborraren portzentai txiki bat baino ez dugu berziklatzen.

Zaborra sailkatu behar dugu

Instituzioak pixkanaka pixkanaka berziklapenaren bide hau jorratzen hasiak badira ere, hiritarron esku dago proiektu honen

arrakasta. Gure etxeetan bertan hasten da birziklapenaren aurrean izango dugun jokaera. Zarama sailkatzen ikasi beharra daukagu; alde batetik papera, beste batetik beira (kristala), hirugarren multzo batean "ontzi arinak", eta azkenik sobratu zaiguna.

Gure etxeetan zaborraren sailkapena egitea ez da batere neko-soa, baina bai dela nabaria gure herriaren ekologiarri eta geure osasunari eragingo diogun onura.

Mikel Arroiabe



Zubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

Pausoka haur eskola txikienekin pausoz pauso lanean

Txikiak hezitzen aurten zazpi urte bete ditu Pausoka haur eskolak. Lau neska, Amaia Aizpurua, Juxe Zuazua, Maite Ortiz de Zarate eta Jaione Zugasti izan ziren proiektuaren bultzatzaileak.

“Herrian horrelako zerbitzurik ez zegoela eta 0-3 urtera bitarteko etapa beteko zuen haur eskola sortzea izan zen gure nahia”.


Udaletxeak proiektua bultzatzen eta gauzatzen lagundu zuen, orduan martxan zegoen enpresa berriak sortzeko programaren barruan. Proiektua kooperatiba modura eratu zen.



Gipuzkoako haur eskolen finantzaketa egoera larrian dago

Gipuzkoako 0-3 zikloko haur eskolak egoera larrian aurkitzen dira. 91an Logse legea aprobaturik, 0-3 zikloa Foru Aldundiko Ongizate sailean egotetik Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailera pasatu da. Legez hezkuntzan egon arren honek ez ditu bere gain hartu nahi. Foru Aldundiaren dirulaguntza, berriz, gutxitzen joan da urtetik urtera: iaz laguntzak 121 milioikoak izan baziren, aurten 90era jeitsi dira. Murrizketa honek batez ere bi urtetako geletan du eragina, hauek laguntza barik gelditzen dira-eta. Urte beteko gelek %25a galduko dute. Pausokakoek Diputazioaren jarrera ulertzekoa dela diote “baina dirulaguntzarik gabe ezin da kalitatezko hezkuntza bat eman”. Horregatik, hezkuntza sailak ziklo hau 0-3 hartu nahi ez duenez, eta haur eskolen diru iturri bakarrenetarikoa Foru Aldundia denez, Gipuzkoako haur eskoletako finantzaketa oso egoera larrian gelditzen da.

Hasierako momentuak ez ziren samurrak izan. Sortzeko asmoa zegoen proiektuaren bideragarritasuna ikusteko ikerketa bat egin zen. “0-3 urte bitarteko umeak zituzten gurasoei inkesta bat egin genien”. Erantzuna positiboa izan zen, baina Pausokak atak zabaldu zituenean, teoria ez zen praktika-rekin bat etorri. “Zortzi umekin hasi ginen”. “Kurtso amaierarako, berriz, 25 ume genituen”. Urtetik urtera umeen kopurua gehitzen joan da eta gaur egun 37 ume daude. 10 ume (0-1 urte bitartean), 13 (1-2) eta 14 (2-3). Eskaria eskaintza baino haundiagoa izan da azken urteotan eta ume asko kanpoan gelditu da. “Maila guztiak beteta



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

◆ Parrila
espezialitatea



GOYARAN ERRETEGJA

Solohaundi-8 ARETXABALETA ☎ 79 68 57

“Urtero programazio bat lantzen da umeen garapena lortzeko”

daude eta ezin dugu ume gehiago hartu. Alde batetik lekuri ez dugulako eta kalitatezko hezkuntza emateko bestetik”. Eskaririk haundiena 0-1 tarte horretan dago, baina kasu honetan ezin dira 10 umetik gora hartu. Maila bakoitzeko ume kopurua errespetatu beharra dago.

Zainketa eta heziketa

Askok Pausoka umeak zaintzeko zerbitzua dela soilik pentsatzen du eta zaila egiten zaie 0-3 bitarteko adin horretan umeekin zer egin daitekeen pentsatzea. Beste hezkuntza sistema batzutan moduan “umea hezi egiten da Pausokan”. Urtero programazio bat lantzen da umeen garapena lortzeko behar diren aktibitate desberdinak bultzatzeko. Bereziki lau arlo lantzen dira: autonomia (janaria, loa,

aldaketak, ohiturak...), motrizitatea (gorputz eta eskuetako mugimendua), hizkuntza (ulermena eta mintzamina) eta beste umeekin eta nagusiekin dituzten harremanak. Besteak beste, sozializazioa, erlazioa, motrizitatea eta hizkuntza landuko ditu umeak.

Aurrean aipatutako moduan, beste hezkuntza zentru batzuk moduan, Pausokak ere, bere hezkuntz proiektua lantzen du.

Irailean ingurua eta taldekideak ezagutu ditzaten adaptazio fasearekin hasten dute egonaldia umeek. Urtean zehar bestalde, hainbat gai jorratuko dituzte: gabonak eta Olentzero, tanborrada, karnabalak, San Juan sua... baita bestelako gaiak ere: erropak, itsasoa, garrarioak, baserriko animaliak...

Hezitzaileek 10etatik 12etara

bakoitzak bere taldearekin lantzen du programa. Ateak bestalde goizeko 7,30etan irekitzen ditu Pausokak eta 6etan itxi. Ume bakoitzak bere ordutegia duen arren, “ordutegi finkoa izatea garrantzitsua da, baita umeak zortzi ordu baino gehiago Pausokan ez egitea ere”.

Umeak gurasoekin denbora asko pasatzea oso garrantzitsua dela azaltzen dute, “guk ez baitugu gurasoen ordezkoko papera egiten, hau konplementatu baizik”. Afektibitate aldetik gurasoen eta etxeko harremanak indar gehiago izan behar du. “Umei heziketa bat emateko gaude hemen. Gurasoak baino objetiboagoak gara sarritan, eta euren seme-alabengan ikusten ez dituzten arazoak ikusten ditugu”.

Zazpi urte hauetan esperientzia gehiago hartuz joan dira Pausokako hezitzaileak eta “orain lasaiago hartzen ditugu gauzak”. Horrek gai berriak jorratu eta zerbitzua hobetuz joateko aukera eman die.

Pausoka eta guraso elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu uztaileko. San Ferminekin hasiko dute egitaraua eta astebetean zehar umeek entzierroa egingo dute. Eguraldiak laguntzen badu uraren astea izango dute ondoren eta urarekin zerikusia duten hainbat joku eta esperimendu egingo dituzte. Uztailean 11an Apotzara joango dira urte batetik 3ra bitarteko umeak. Gainera, pistina ere patioan izango dute bero haundia egiten duenean jolastu ahal izateko.

Oporretara joan aurretik uztailean 24an azken jaia ospatuko dute. Uztailean, beraz, ondo pasatzeko aukera izango dute Pausoka haur eskolako ume guztiek.

Uztailean ekintza ugari Pausoka haur eskolan



BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

KIXKOR TABERNA

Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta

Udalekuak:

gaztetxoen bigarren etxeak

Ikasturtea bukatu bezain laster, udalekuek euren atea zabaltzen dituzte. Aisialdia pasatzeko eskaintza gero eta zabalagoa da eta gaur egun, uda pasatzeko hainbat aukera dituzte gazteek.

Aretxabaletako ume eta gaztetxoek ere, bai herrian bertan bai eta herritik kanpo antolatzen diren udalekuetan parte hartuko dute.

Duela urte batzuk ume asko oporretan zer egin ez zekiela egoten zen. Gaur egun, aisialdiak ume eta gaztetxoentzat eskaintzen dituen aukeren artean udalekuak ditugu. Uztaila eta abuztuan bereziki, gero eta ume gehiagok hartzen du parte udalekuetan, nahiz herrian bertan antolatzen direnetan nahiz bestelako kanpamentuetan.

Esan daiteke, udaleku gehienek helburuak berdintsuak direla: partaideen arteko harremanak bultzatu, norberaren autonomia sendotu, inguruarekiko errespetua landu, euskararen erabilpena bultzatu eta ondo pasatzeaz gain, gazteen heziketan eragitea.

Udaleku irekiak Ortzadarrekin

Herri gehienetan udaleku irekiak antolatzen dira uztailean zehar. Herriko umei goiz eta arratsalde euskaraz jardun, lagunak egin eta ondo pasatzeko aukera eskaintzen zaie.

Ortzadar dugu herriko gaztetxoentzat udaleku irekiak antolatzen dituen taldea. Udako udaleku irekiak, urtean zehar zapaturu-zapaturu eginikoaren jarrai-



175 ume hartuko du parte udaleku irekietan

Ondo pasatzeaz gain, gazteen heziketan eragitea dute helburu udalekuetako ekintzek

pena izaten dira.

Uztailaren leian hasi ziren udaleku irekiak gure herrian eta aurtengo honetan 175 ume parte hartuko du. Mikel Lopez, antolatzailerikoa batek adierazi digunez, eskolaurreko umeak dira gehien apuntatu direnak. "Urtetik urtera gero eta gazteagoek hartzen dute parte". Kontutan hartu behar da bestelako aisialdirako eskaintzak ere gero eta gehiago direla.

Ume hauekin batera 20 monitore ibiliko dira lanean. Guztira zazpi talde egingo dira eta talde bakoitzak bi monitore izango ditu. Besteak beste euskararen eguna eta euskal jaia, uraren eguna, San Ferminak eta bestelako irteera, eta jokuak antolatuko dituzte herriko ume eta gazteek une atsegina bat

pasa dezaten.

Etxetik kanpora udalekuetan

Ortzadarrek herrian gelditu nahi dutenentzako eskaintza ematen badu ere, kanpoan euren oporraldiko egun batzuk pasatu nahi dutenentzako ere aukera zabala dago.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek 7 eta 13 urte bitarteko neska-mutilentzako hainbat aukera eskaintzen dute udarako, hiru lurralde historikoetan.

Gero eta gazte gehiago da kanpamendu hauetan parte hartzen duena. Aurten esaterako Euskal Herriko 2.000 umetik gora banatuko da Foru Aldundiek eskaintzen dituzten hogeita kanpamentuetan: Zarautz, Hondarrabia, Gorliz, Zes-

toa, Orduña, Zuaza, Barria...

Euskal Udalekuak: Bernedo, Goñi, Abaigar eta Urdiroz

Foru Aldundiak antolatutako udalekuez gain, Euskal udalekuak ditugu. 25 urte daramate lanean eta euskarazko udaleku bakarrak izan dira urte askotan zehar. Bernedo, Goñi, Abaigar eta Urdirozen aurkitzen dira Euskal udalekuetako etxeak. Josu Sarasuak, ondo ezagutzen du Goñiko udalekua. Lau urte egin ditu Goñiko begirale eta beste bi arduradun gisa. Berak kontatu digu udaleku honen antolaketa: "Uztaila eta abuztuan zehar hiru txanda osatzen dira Goñin, hiruren artean osatzen da Dorreako kultur elkartera". Azken urteotan 120 bat neska-mutiko izan dituzte Goñiko hiru txandek, hauetaz gain begirale, milo eta sukaldariak.

“Euskal udalekuen sostengua, begirale eta miloen lan militantean oinarritu da betidanik”

“Hirugarren txandan atxabaltar ugarik hartzen du parte udalekua antolatzen. Batzuk begirale, beste batzuk milo (“mil ofizioa” delakoa) gisara”.

Umeak, berriz, Euskal Herri denetik hurbiltzen dira Goñira, iparralde nahiz hegoaldeetik. “Gure udalekuak azken urteotan ez du gorabehera haundirik izan haur kopuruari dagokionez. Euskal Herri guztira irekita egoteaz gain,

merkeena ere bada, agian horregatik izan daiteke”.

Euskal udalekuen sostengua, begirale eta miloen lan militantean oinarritu da betidanik. Jaurlaritza eta Foru Aldundiaren laguntza ia hutsa izanik, “diru errekurtsorik ezean, giza errekurtsorik eta sormenaz baliatu gara aurrera egiteko”.

Gaur egun, Foru Aldundiak, herriko taldeek eta ikastetxeek antolatutako euskarazko udalekuak aurki genitzake edonon, beraz, “eskaintza gero eta erakarriagoa egitea ezinbestekoa dela” azpimarratzen du Sarasuak.

Ikastetxeetako eskaintza

Beste udaleku mota batzuen artean ikastetxeek antolatzen dituztenak ere baditugu. Kasu honetan urrun joan barik, Almenek iharduera ez arautuaren barruan antolatzen dituenak daude. Jesus Arregi eta Aitor Guridi oñatiarrak dira udaleku hauen antolaketa daramatenak. Bost bat urteko esperientziak urtez-urte hobetzen joateko aukera eman die.

Aurten 4 urtetik 18ra bitarteko 240 neska-mutikok parte hartuko du antolatu diren bost txandatan. Txikienak (4-8 urte) orain arte Lizarrara joan badira ere, Gares izango dute topaleku aurten. 4-5 eta 6. mailakoek Lizarra; 7 eta 8. mailakoek Belagua eta nagusienak Pirineotara joango dira.

Txandetako arduradun, espezialista eta monitore lanetan 60 bat lagun ibiliko da. “2. REMera iris-tean monitore taldea osatzen da eta



Gaur egun, Foru Aldundiak, herriko taldeek eta ikastetxeek antolatutako euskal udalekuak aurki genitzake edonon

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta

Lie

Lurrindegia
Opari-denda
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

LEIBAR
ARRAINDEGIA

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

monitore hauek urtean zehar ere eskolatik kanpo egiten diren aktibitateetan parte hartzen dute: kirola, gimnasia erritmikoa, gitarra..."

Txikienekin, jolasak, gaubelak eta antzeko ekintzak burutzen diren bitartean, nagusiagoekin kirola eta abenturazko iharduerak tartekatzen dira: trekking, piraguismoa, mendi bizikleta, etabar. "Adina haundituz doan heinean, umeez gero eta egun gehiago pasatzen dute etxetik kanpo".

Kasu honetan ere, erakunde publikoetatik jasotzen den dirulaguntza urria da. "Foru Aldundiak kopuru txikia ematen du lagun bakoitzeko eta ondorengo baldintzak eskatzen dira gainera: gutxienez zazpi egun baino gehiagoko udalekua izatea, zazpi urtetik gorako gazteak izatea, begiraleen kasuan, erdiak titulodunak eta batzuk zuzendari tituloa ere izatea.

Bi txantxikuar hauen adierazpenetan, aktibitateek kentzen dute diru kopururik haundiena, kasu honetan, Belagua eta Pirineotako irteerak 30.000 pezetako prezioa dute. Hasiara baten kopuru haundia ematen badu ere, "egiten diren ekintzak eta estantzia kontutuan hartu ezker ez da horrenbeste". Txikienen udalekuak, berriz, 12.000 pezetako prezioa dute.

Kontuak kontu, udalekuak leku aberasgarriak dira umeen eta gaztetxoek garapenerako, bi txantxikutar hauen esanetan beste helburu batzuen artean "ondo pasaitia" da garrantzitsua.



Orain hiru urte Almenetik Pirineotara eginiko irteera



Alazne Diaz

"Lagun asko egiten da udalekuetan"

Foru Aldundiak antolatutako udalekuen barruan, Zuazara joango da Alazne Diaz 11 urteko atxabaltarra. Orain hiru urte Goñira joan zen, beraz, ez da etxetik kanpo udalekuetan egon den lehen aldia. Kanpoko udalekuez gain, udaleku irekietan ere sarri parte hartu izan du.

• Zergatik aukeratu zenuen Zuaza udalekua?

Zuazan oso ondo pasatzen dela entzun izan dut, uretako kirolak, mendira irteerak... egiten direla.

• Aurretik Goñin egondakoa zara. Zer moduz bertan?

Oso ondo. Zortzi egun egin genituen. Egunero mendira joaten ginen, naturarekin zerikusia duten aktibitateak egiten genituen. Euskal Herriko leku askotako jendea ezagutu genuen.

• Gogoz zaude udalekuetara joateko?

Bai, gogo haundia daukat. Etxean oporretan aspertu egiten da eta han ekintza ugari egingo ditugu eta ez dugu aspertzeko denborarik edukiko.

• Zerbait berezia eramateko esan dizute?

Uretako arropa eta materiala eramateko esan digute. Zuazan urarekin zerikusia duten ekintza ugari egiten da eta.

Mitartegarai
Jatetxea

- Nekazalturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 794844
Faxa: 792941
ARETXABALETA

**ZURE AMETS GUZTIAK
EGIN AHAL IZANGO DITUZU**

ALMERA



MICRA



PRIMERA



TERRANO



ZATOAZ ETA EZ ZARA DAMUTUKO

CHASIS
CABINA



GAMA
TRADE



ECO-7



VANETTE
CARGO



ALDIBI AUTOAK

ZIGORROLA KALEA, 1 • TEL. 943 / 71 20 02
20.500 ARRASATE

BAIMENDUTAKO ZERBITZUAK

TALLERES MOTOR KIDE

ITZIAR INDUSTRI POLIGONOA, 4 • ITZIAR-DEBA

LEGAUTO NORTE 95

LEGAZPIKO BIDEA, ZIG • LEGAZPIA

TALLERES BLANCO

SAN LORENZO BIDEA POL. 4 • BERGARA

NISSAN

GIDATU
ETA GOZATU



UNITED COLORS
OF BENETTON.

BEHERAPENAKI!

Benito Gaztañaga

“Garmendia eta Iriartek herriaren alde egin dutena gogoratzeko plaza edo kaleren baten izena merezi dute”

Aretxabaletatik Kanarietara joandako gizona dugu Benito Gaztañaga. 25 urte egin ditu bertan baina ez du bere jaioterria saltzeko. “Atxabalta dagoen lekuan ezin da besterik ipini”. Urtean behin gutxienez etortzen da hona eta “oso gustora” gainera.



• **Zer egiten du atxabalta batek Kanariar irletan?**

Gaztetan gutxi asentatutakoa eta alde batetik bestera ibiltzea gustatzen zitzaion horietakoa nintzen. Sei urte egin nituen Europan zehar. Halako baten, bizitzako denboraldi txar bat pasatzen ari nintzela, kanpora joan beharra sentitu nuen eta Kanariasera joan nintzen.

• **Bizimodua nola aterata zenuen aurrera?**

Dagoeneko 25 urte egin ditut bertan. Hoteletan sukaldari lana egiten hasi nintzen, sekula ere lehenago sukaldean ibili bakoia nintzen. Hoteleko harreraren ere egon nintzen eta gaueko arduradun ere izan nintzen. Momentu

honetan, hankak hondatuta dauzkat eta pentsioduna naiz.

• **Zer ekarriko zenuke handik hona eta hementik hara zer eraman?**

Aretxabaletatik hara euskaldunen lanerako kontzientzia, lanean gora igotzeko kontzientzia. Handik hona eguzki apur bat, larregi barik.

• **Aldatuta topatzen duzu Aretxabaleta etortzen zarenean?**

Etortzen naizen bakoitzean beti aurkitzen dut zeozer berria edo aldatua. Herri zoragarria daukagu. Gaur egun industria herri erdian egon arren dotoretuta dago.

• **Kanarietan bizi arren, euskaraz ondo moldatzen zarela ikusten**

da.

Bai, ama hizkuntza ez da horren azkar ahazten. Euskaldunak sarri ikusten gara bertan.

• **Herriko berrietaz jakinean zaudela ikusten da.**

Bai, desiatzen egoten naiz Aretxagazeta noiz iritsiko. Gustora irakurtzen dut.

• **Zer gustatzen zaizu gehien?**

M.J. Aretxaga. Umore zentzua ematen dio artikuluari.

• **Zer esango zenioke Aretxabaletako herriari?**

Herri honetan Frankoren garaian euskararen alde lan garrantzitsua egin

zuen pertsona bat daukagu: Don Angel Garmendia abarea; bere garaian merezitako omenaldia jaso zuena. Oraintxu hil zaigun Demetrio Iriarte txistulariak ere lan handia egin zuen musikaren alorrean. Aretxabaletan jaio ez diren arren gure herriari kultura arloan eman diotena azpimarratzekoa da, herri mailako lana egin dute. Guridi musikoa, Iparragirre abeslaria, Cardenal Durana... moduko gizonen gure herrian zerikusituzena ez izan arren, badute euren kalearen izena. Zergatik ez Garmendia eta Iriartek? Herriari emandakoa aurrerantzean ere gogoratzeko bidea izango da.



**LASA
AGUILERA**

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURIAK

Euskadiko Kutxa
Taldekoa

Errekararren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

Igor Arenazak Eibarren jarraituko du datorren denboraldian

Oraindik Eibar taldearekin kontratua sinatu ez badu ere, Igor Arenazak Eibar taldean jarraituko du datorren denboraldian. "Bi aldeon aldetik adostasun horretara iritsi gara, nahiz eta oraindik kontratua sinatu ez dudan".



Futbol jokalaria honen historiala begiratzeko badugu Almenera jo behar dugu, bertan eman baitzuten futboleko lehen pausoak. Hemendik UDAko jubeniletara egin zuen salto, baina denbora gutxi egin zuen bertan, denboraldi bakarra. Hurrengoko lau urteak Bilbao Atletikentzat jokatu zituen eta azken hiru urteak Eibarreko taldean egin ditu. Beraz, datorren urtean laugarren urtea izango du Eibarren.

Arenaza pozik azaltzen da taldeak egindako denboraldiaz. "Oso denboraldi ona egin dugu. Laugarren postutik gora mantendu gara eta azkenean bostgarren postuan bukatu dugu. Maila handia dauka Eibarrek eta taldeak ilusio handiekin bukatu du".

Lehen mailatik gertu egon arren, ez dute igotzea lortu "oso zaila zen, inork ez zuen gurekin kontatzen, baina azkenean erakutsi dugu talde handia garela eta badakigula goian jokatzeko eta mantentzeko zer den".

Jokalaria guztien nahia titular izatea eta ahalik eta gehien jokatzeko izaten da. Alde horretatik Arenazak ez du nahi bezalako denboraldia egin. "Aurten ez naiz ondo ibili. Etxean ez dut asko jokatu, kanpoan, berriz, titular izan naiz eta gehiago jokatu dut". Datorren denboraldira begira esperantzak ez ditu galdu: "denboraldi hobea egin eta titular jokatzeko gustatuko litzaidake".

Iban Sastrek etapa bat irabazi zuen Segoviako itzulian

Arrasate Txirrindulari Elkartearen txirrindularia den Iban Sastrek garaipena lortu zuen Segoviako itzuliko bigarren etaparen. Ekainaren 26tik 29ra burutu zen itzulia eta Sastre bikain ibili zela esan beharra dago. Klasifikazio orokorrean laugarren postuan bukatu arren, lau etapako itzulian emaitza onak lortu ditu eta horregatik erregularitatearen mailota jaso zuen. Lehenengo etaparen 7. sartu zen eta bigarrenean garaipena lortu zuen. Zorte txarra izan zuen hirugarrenean, sprintean bizikleta apurtu baitzuten. Hala eta guztiz, azken etaparen bigarren izatea lortu zuen. 20 urteko afizionatuak Zamorako itzulia korrituko du datorren uztailaren 16tik 20ra bitartean.

Pedro Guenetxea Memoriala

Datorren zapatuan, UDA txirrindulari elkarteak antolatuta, Pedro Guenetxea Memoriala egingo da. Aurten hirugarren aldiz antolatuko da eta bigarren urteko kadeteak parte hartuko dute. Lasterketa arratsaldeko 4etan hasiko da Durana kalean eta 5,30ak inguruan izango du amaiera. Txirrindulariek egingo duten ibilbidea honako hau izango da: Aretxabaleta-Almen-Eroski-Epele-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza-Aingeru Guardan bira-Aretxabaleta-Arrasate-Epele-Arrasate-Aretxabaleta-Almen-Mugarri eta amaiera Durana kalean. 60 km.tako ibilbidean txirrindulariek bi aldiz igo beharko dute Epele. Karrera amaitutakoan, sari banaketa egingo da Durana kalean.

UDAKo zuzendaritza berriztu asmotan

UDA, Aretxabaletako kirol elkarteak, zuzendaritza batzordea berrizteko asmotan dabil eta hori dela eta hautagaiak aurkezteko epea zabaldu zuen. Hasiera baten ekainaren 30erako ezarri zuen epea.

Epe hori pasatu eta gero, hautagairik aurkeztu ez denez, uztailaren 11n batzar orokorra egingo du UDA kirol elkarteak. Bertan balantze ekonomia aurkeztuko da eta batzorde berriaren aukeraketa ere egingo da. Batzar orokorra uztailaren 11n egingo da udaletxeko pleno aretoan arratsaldeko 8etan.

BR Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1

Aretxabaleta

Tfno: 79 82 44

ARGAZKI

Urkiola


Tfnoa: 79 39 20

ARETXABALETA

Roberto Gutierrez

Minesotara saskibaloian jokatzera

Aurten Urbina-Maltzaga taldean jokatu ondoren datorren denboraldia Minesotako taldean egingo du Roberto Gutierrezek. Gurasoen eta bere borondatez aukeratu du Estatu Batuetara joatea. Ez bakarrik saskibaloian jokatzeko, ikasketak eta saskibaloia aurrera ateratzeko aukera hobea eskaintzen delako baizik. 17 urteko jokalaria, abuztuaren 24an abiatuko da Mineapolisera.



• **Nolatan jokatu duzu datorren urtean Minesotako taldean?**

Nire etxean saskibaloia baino lehenago ikasketak daude eta nire aitak bi gauzak batera egin nitzan nahi zuen. Bi gauzak nahi banituen Estatu Batuetara joatea gomendatu zidaten eta ordezkari baten bitartez talde bat aurkitu didate bertan.

• **Zergatik gomendatu zizuten Estatu Batuetara joatea?**

Hemen saskibaloian jokatzeko duzunean, kirol horretan ona zaren bakarrik begiratzen dute. Han, berriz, ikasketei garrantzi

haundia ematen diete eta kurtsoa aprobaturik joan behar duzu saskibaloian jokatzeko.

• **Ezagutzen duzu taldea?**

Egia esan ez. High school mailan jokatu dut. Iaz eskualdeko txapelidun gelditu zen.

• **Saskibaloian jokatu eta ikasi ere egingo duzu hortaz?**

“Saskibaloian jokatzeko eta ikasteko aukera hobea dago han”

Bai. UBI ikasiko dut bertan eta bitartean saskibaloian jokatuko dut. Hasi era batean urtebeterako joango naiz. Denboraldi on bat egiteko asmoa dut.

• **Zer dakizu hango saskibaloiaz?**

Hemen teknika gehiago lantzen dela esaten da fisikoa baino. Han fisikoari garrantzi handia ematen zaio eta fisikoa ondo landu

ostean lantzen da teknika.

• **Zer moduz azken denboraldia Urbina-Maltzagan?**

Bi hilabete oso onak egin nituen baina gainontzekoan ez nuen asko jokatu. Entrenatzaileak gazteoi eta bertako jendeari ez digu jokatzeko aukera asko eman. Partiduetan jokatu duten jokalariek gehienak kanpotarrak izan dira.

• **Euskal Herri mailan aukera asko dago gora igotzeko?**

Bosman legea atera zenetik, gero eta aukera gutxiago dugu gazteok saskibaloian aurrera egiteko. Europa mailako legea da. Talde batek beste Estatu bateko jokalaririk fitxa ditzake asko ordaindu barik. Lehen kantera on bat izatea zen garrantzitsuena, orain, berriz, atzerriko jokalariek erraz lor daitezke. Guzti honek bertako kanterakoen aukerak gutxitzen ditu. Oso ona izan behar duzu gora igotzeko.

• **Datorren urtean kinto izango zara, baina Santa Agedatan ez zara hemen egongo.**

Ez, egia esan pena ematen dit, baina zer egingo diogu.



Esko Sport

Intxaurtxueta, 5 71 52 96
ESKORIATZA

KIROLDENDA

*Egunero kirolerako moda,
beti ere aurreneko marketan*

Larunbat arratsaldetan
zabalik

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

• Sukalde muntatzailea
• Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

**ARBULO
HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABAleta



Arrasate irrastian, 107.7 frekuentzian "Bi zoro eta zu" izeneko magazina zuzentzen du Eduardo Abasolok Mikel Lizarralderekin batera. Zapatuetan zuzenean egiten dute saioa. Orain oportetan badaude ere, datorren ikasurtean programarekin jarraituko dute.

- Nola hasi zinen Arrasate irrastian "Bi zoro eta zu" magazina egiten?
Irratira joan eta tekniko moduan lanik egin nezakeen galdetu nien. Baietz esan zidaten eta gero irratiko lana asko gustatzen zaidanez, magazina egiten hasi ginen.

"Telebista irratia baino gehiago gustatzen zait"

- Zer nolako esperientzia da irratikoa?

Oso aberasgarria. Iratikoko funtzionamendua ikasten da, inprobisaketak egiten... Teknika aldetik ere asko ikasten da, programak nola egiten diren...

- Zer entzun daiteke magazin horretan?

Efemerideak, estreinatu diren pelikulen sipnosiak, bromak, kotileoak, bitxikeriak...

- Urduri jartzen zara irrastian?

Bai, hasieran gehienbat. Baina orain gero eta lasaiago egoten naiz.

- Soinu eta Irudi karrera ikasten diharduzu Andoainean. Zenbagarren urtea aurten?

Hiru urte dira eta bigarrena bukatu dut aurten.

- Arlo horretan praktikarik egin duzu?

Canal Gasteiz telebistarako grabaketa lanak egingo ditut udan. Bestalde, Guass diskotekan jai bat grabatu nuen, Portasoleko jaiak ere bai eta Arrasate irrastian tekniko lanak egin ditut.

- Irratia ala telebista duzu gurago?

Telebista gehiago gustatzen zait irratia baino.

- Aurtengo oportetean zer egingo duzu?

Canal Gasteizerako praktikak.

- San Ferminetara joateko asmorik bai?

Ezetz uste dut.

- Portasoleko jaiak antolatzen ere bazabilizta. Zer izango dugu aurtengo programan?

Zezenak beste kale batean izango dira aurten, Gorbea, Aralar... "Hermanas Ross" taldea etorriko da eta kontzertu elektronikoa. Iaz arrakasta izan zuen eta aurten zuzenean joko da eta 25 Dj. etorriko dira.

- Portasoleko jaiak zelakoak direla iruditzen zaizkizu?

Beste jai batzutatik desberdinak dira. Gogoz eta ilusioz antolatzen ditugu jaiak.

- Zeintzuk dira zure afizioak?

Okupatuta egotea gustatzen zait.

- Filme bat gomendatzekotan?

"El paciente inglés".

- Aretxabaletako herria zer moduzkoa da bizitzeko?

Ni gustora nago hemen.

- Astebukaeretan non irtetzen duzu? Aretxabaletan.

Nerea Euskerajatorregi-ren ibilerak

INLIRRATEGI
ANAIER EGIN
DAUE GAILLIRRA?

MARRAZKIAK: MIKEL ARROIABE

loramendi
eusquera elkarte



Arechavaleta

Ayuntamiento compuesto de 2.508 habitantes e integrado de los barrios Oro e Ibarra y diseminados. Pertenece al partido judicial de Vergara, del que dista 11 kilómetros; y a 82 kilómetros de San Sebastián. Tiene estación de ferrocarril en la línea de Málzaga a Vitoria (Ferrocarril Vasco-Navarro). Carretera de Vergara a Vitoria, con servicio diario de autobuses de la línea de Eibar a Vitoria. Dispone de central telefónica de la red provincial. Le baña el río Deva. Existen en su demarcación nueve iglesias, entre las que destaca la dedicada a la Asunción de Nuestra Señora; portada románica del cementerio, que procede de la antigua parroquia de San Miguel y un manantial y balneario de aguas sulfurosas. Entre los hijos destacados de este Ayuntamiento, señalamos los nombres de Sebastián Contreras, Sancho López y Juan Otalora.

CARGOS OFICIALES Y PROFESIONES

Ayuntamiento: Teléfono 393.

Alcalde: Bustaquito Alcorta.

Concejales: Faustino Lasagabaster, Fran-

cisco Uribe, José Garay, Teodoro Unanue, Timoteo Espeleta y Toribio Elcoro.

Secretario del Ayuntamiento: Ignacio Usandizaga.

Jefe municipal: Ramón Arrúe.

ANUARIO VASCONGADO

383

Secretario del Juzgado municipal: Ignacio Usandizaga.

Fiscal municipal: José M. Amuriza.

Cura párroco: Angel Garmendia.

Coadjutor: Vicente Aranburu.

Jefe local de F.E.T. y de las J.O.N.S.: Toribio Elcoro.

Jefe local sindical: Ramón Arrúe.

Jefe de la Oficina de Colocación Obrera: Toribio Elcoro.

Jefe de Organizaciones Juveniles: Domingo Uribealzo.

Delegado de Auxilio Social: Ramón Arrúe.

Maestros nacionales: Benito Alonso, Isidro Echeverría, Cirila Galarza y María Concepción Pérez.

Médico: Tomás Aguirre.

Farmacéutico: Pablo Urtubi.

Practicante: Esteban Echeveste.

Cuartel de la Guardia Civil: Teléfono 420.

INDUSTRIA Y COMERCIO

Aguas medicinales: Vicente Arrieta.

Aparatos eléctricos (fábrica de): Industrias Beroa, tel. 85.

Barberías: Dionisio Urrutia, Ibarzábal y Zubizarreta, Ricardo Zubillaga y Toribio Elcoro.

Baterías de cocina (fábricas de): Industrial Beroa, tel. 86.

Bicicletas: Dionisio Urrutia y Pedro Urreta.

Cafés: Casino de F.E.T. y de las J.O.N.S. Luis Beltrán, Roque Aguirre y Viuda de Severo Galdós.

Caja de Ahorros: Agencia de la Caja de Ahorros P. de Guipúzcoa, tel. 270.

Calzados (fábrica de): Romualdo L. Barrrutia, tel. 132.

Carbonerías: Casto Mendieta.

Carnicerías: Eugenio Uralde, Pedro Bengoa y Tomás Echave.

Carpinterías: Gregorio Altuna, Higinio Ezpeleta, Hilario Errasti y José Jáuregui.

Carpinterías mecánicas: Amuriza y Cia., teléfono 428; Félix Arenaza, Hilario Errasti, Ignacio Ezpeleta y Gregorio Altuna.

Cerrajerías: Aguirregaviria y Zubía, teléfono 258; Illargui, Sdad. Ltda., tel. 389; Tomás Zumalacárregui y Valle Leniz.

Cesterías: Justo Elortondo.

Confitería: Eustaquio Alcorta.

Ebanisterías: Félix Arenaza y La Industrial Moderna.

Embalajes (fábricas de): Amuriza y Cia., teléfono 428; Higinio Ezpeleta e Hilario Errasti.

Ferreterías (fábricas de): Illargui, S. L., teléfono 389; Iturbe y Cia., tel. 329 y Valle Leniz.

Fonda: Hijos de Vicente García.

Fundiciones: Iturbe y Cia., tel. 329.

Gasolina: Domingo Uribealzo.

Laminaciones: Industrial Beroa, tel. 86; Lezama y Cia., tel. 60.

Molinos: Jerónimo Uribealzo y José Joaquín Uribe Echeverría.

Pescaderías: Gregorio Altuna, y T. Altube.

Serrerías mecánicas: Félix Zugasti e Hilario Errasti.

Soldadura autógena: Valle Leniz.

Tabernas: Cecilio Arcauz y Francisco Altube.

Tapas de inodoros (fábricas de): La Industrial Moderna y Pedro Azcoitia.

Tocinerías: Tomás Echave.

Trapos (Regeneración de): Iturzaeta Hnos.

Ultramarinos: Lorenzo Echeverría, Pedro Lasagabaster y Romualdo L. Barrrutia.

944. urteko "Anuario Vascongado" liburuan topatu dugu beheko lerroetan deskribatzen den Aretxabaletako informazioa.

Liburua urte hartako Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako herrietako industri, komertzio eta Udal korporazioen gida da.

Gerra ostea izanik, nabari da espainiar falangeen mugimendua, erdararen nagusitasuna... Garai hartako liburu gehienak moduan erdera hutsean idatzita dago liburua.

Sarrera gisa herriaren deskribapen txikia egiten da (testua literalki kopiatuta dago):

"Ayuntamiento compuesto de 2.508 habitantes". "...Tiene estación de ferrocarril en la línea de Málzaga a Vitoria (Ferrocarril Vasco-Navarro). Carretera de Vergara a Vitoria, con servicio diario de autobuses de la línea de Eibar a Vitoria. Dispone de central telefónica de la red provincial. Le baña el río Deva. Existen en su demarcación nueve iglesias, entre las que destaca la dedicada a la Asunción de Nuestra Señora; portada romántica del cementerio, que procede de la antigua parroquia de San Miguel y un manantial y balneario de aguas sulfurosas. Entre los hijos destacados de este Ayuntamiento, señalamos los nombres de Sebastián Contreras, Sancho López y Juan Otalora".

Sarrera honen ondoren udaletxeko karguen eta industria eta komertzioen zerrenda deskribatzen da. Horien artean ondorengoak jaso ditugu, gainontzekoak goian irakurri ahal izango dira. Udaletxeko telefonoa: 393; parrokoa: Angel Garmendia, koajutorea: Vicente Aranburu. Eustakio Alkorta alkatea; kontzejalak: Faustino Lasagabaster, Francisco Uribe, Jose Garai, Teodoro Unanue, Timoteo Espeleta eta Toribio Elcoro; idazkaria, Ignacio Usandizaga; epailea: Ramon Arrue; F.E.T eta J.O.N.S.eko arduraduna: Toribio Elcoro; sindikatuko arduraduna: Ramon Arrue.

Liburua: Carlos Bengoa

Neguan uda udan negua



Itxura baten hau izango da gure patua aurten, baina lasai ez dizuet oraingoan eguraldiaz berba egingo, gai horretaz dexente aspertuta nago eta.

Urte sasoi hau egokia izaten da kirola egiteko eta hori nabarmen igarriko duzue, gure albiste gehienak kirolarekin lotuta daude eta.

Futbolarekin hasita esan behar da, **Igor Arenaza** jokalaria urtebete luzatu diotela kontratua Eibar taldean, ez duguna jakiterik izan "klausula" zenbat miloitan jarri dioten da.

Saskibaloian **Roberto Gutierrezek** Estatu Batuetan frogatzea erabaki du eta datorren urtean ikasketekin "konpaginatu" bertako talde baten jolastuko du. Ea ba, laister Jordanen aurka jolasten ikusten dugun.

Tourra hastera doan aste honetan ezingo dut txirrindularitza aipatu barik utzi. **Iban Sastre** Arrasateko txirrindulari elkartekoa bikain ibili da. Segoviako itzulian etapa bat irabazi du eta baita

erregulartasunaren saria ere. Bestalde, **Joxemi Elizburuk** Espainiako erlojuaren kontrako proban hartu zuen parte. Lasterketan 11. gelditu zen. Aberba hemendik urte batzutura Arlutzeko toureko "Porran" ikusten ditugun.

Kirolarekin jarraituz eta besteak baino "bete-garriagoa" den kirol batetaz berba egingo dizuet, perretxiko batzeaz. Kirol estimatu honetan **Karmele Bengoak** Kurtzebarri inguruan 750 gramoko ontto zuri eder bat topatu zuen, hau bai saria!

Kirola alde batera utzita Aretxabaletako Udalak bake epaile lanerako eta ordezkotzako izateko aurkeztutako kideetatik **Kepa Azkue** eta **Maria Pilar Arenaza** aukeratu ditu. Ea euren lana bakean egitea lortzen duten.

Galartzako dorretxearen ingurua edarto txukundu zuten, baina horrela mantentzeko Udalak pertsona bi, **Angel Fernandez** eta **Luis Sebastian** kontratatuko ditu bertako mantenimendua egiteko. Beste guztiok ere lagundu dezakegu gure zaborrak lurrera bota beharrean etxera eramaten baditugu. Oharra: Honek Urkulurako ere balio du.

Opor sasoi delatzen eta, beste batzuk ere herritik irtetzea pentsatu dute. **Aretxabaletako nagusien akordeoi orkestrakoak** Italiara joango dira jaialdi batean parte hartzera. Uztailaren erdialdean irtengo dute Italiako Santa Justina herrirantz. Berri gehiago hurrengo alean izango dugu.

Azkenik esan behar da pediatrik Marina Salazarrek herritik alde egingo duela, Laudiora doa.

Eta datorren astean badakizue, gora San Fermin!

A R E T X A Z O K A

LANA

- Neska euskaldunak udan klase partikularrak eman-go lituzke: OHO, REM eta BUPeko lehen eta bigarren maila. Tfnoa: 79 51 19.

ETXEBIZITZA

- Atenditzeko arazoengatik Arrasaten martxan dagoen eta bi iharduera dituen denda saltzen da. Prezioa konkretatzeko. Harremanetarako telefonoa 77 13 91 telefonoa.
- Laredon apartamentua alokagai dago. Abuztuko azken astea edo iraileko lehen hamabostaldia. Tfnoa: 79 31 47.

- Aretxabaletan ileapain-degi mixtoa alokagai dago. Solariuma eta edertze aretoa ditu. Lokal argia da. Herriaren erdian. 60 m²koa. Instalazio guztiak ditu eta funtzionamenduan. 77 12 70-79 94 39.

- Aretxabaletan pisu bila gabiltza. Tfnoa: 79 10 93.

- Lokal komertziala salgai dago Eskoriatzan, 25 m². Tfnoa: 79 00 60-79 21 24.

- Garajea salgai dago Murubiden. Tfnoa: 79 00 60-79 21 24.

- Etxea salgai dago Eskoriatzako San Pedro auzoan. 80 m², guztiz erreformatua. Tfnoa: 71 47 32.

DENETARIK

- Motor bat salgai. Kawasaki Vulcan. 77 00 62 (arratsalde 3etatik aurrera).

- Behar ez duzun ordenagailuren bat baldin baduzu deitu Saretxora. Tfnoa: 79 10 51-79 01 05.

- Remolkea salgai. JB-150 modelo. Soporte eta aldatzeko erruerekin. Berria da, ezin izan dugu erabili. Oso prezio egokia. 79 81 78.

- Kanping denda salgai. 3 logela, sarrera eta aterpea. Harremanetarako deitu 77 11 45 telefonora.

- Renault 5 GTL kotxea salgai. SS-P. Egoera onean 77 93 30-79 81 35.

- 4/5 plazatako karabana erosiko genuke. Tfnoa: 79 77 85.

- Siberiar husky txakurkumeak salgai. Pedigree bikaineak eta prezio ezin hobean. Tfnoa: 79 59 85. (Anagatik galdetu).




HITZ GEZIDUNAK



		KAMIOA		*IZENA		TXAPELETA MOTA		ABESTIA
		MUSIKA-TRESNA		EZ ZAHARRA		EGILE ATZOKIA		ENEA
		APURTU						
		HAREN ERREFLEXIOA				ARDUHITZ ELKARKETAN DESENKUSAK		
"DEITURA ENPARAN-TZA	MAINDREA AMERIKA-KOA	HILTZEKO TRESNA BOKALA					BIZKAIKO HERRIA AHOSTUNA	
			TREBEA					IZADIA
			HANDITU					
SORTU ZINTUENA		BASA ANIMALIA						NITROGE-NOA
BASA ANIMALIA		KARTZELA						KONTSO-NANTEA
				DEI HITZA				
				ARAGOAKO				
BIZK. GARBIA					NON KASUAN			KONTSO-NANTEA
URETAKO IGAROBIDE					GORATU			ETA
		XAKATU						
		KONTSO-NANTEA						
AGIRIA				...DENEAN, DIRUDIENEZ			EZ EME	
BURDINOLA				BIGARREN BOKALA			1.000 GR.	
		LUZERA NEURRI ZAHARRAK						LEHEN BOKALA
		JARDUN						GADETZALEA
BARRUAK	ERRITMO BELTZA		ZERO		ATZOKIA			ERDI-ERDIAN
	ZILARRA		KONTSO-NANTEA		SUARI DARIO			
						ERDIETS		
						POTASIOA		
EKAIA			KIROL MARKA					

HABE

JEROGLIFIKOA



HABE

* Soluzioak 22. orrialdean.

Aspaldian ikusi duzu Mikel?

ZALDIKO MALDIKO

TZAT.	I	SA	PO	RRAI
GA	ZOI	NEN	A	O
TSAS	REN	JEN	A	RA
NA	RRI	U	TZAT,	DE

HABE

Xakeko zaldunaren mugimenduaz baliatuta eta nabarmendu egin den silabatik abiatu-rik, osa ezazu esatera hau.

Liburu- txokoa



Oraingo honetan euskarzko poltsiko liburuak ekarriko ditut lerro hauetara. Izan ere oporrak ganean ditugu eta liburu hauek aproposak izan daitezke bidaiatzen ari garen bitartean beste bidaia literario bat ere egiteko.

Euskaraz baditugu bi bilduma "Mila-bidai" Erein argitaletxekoa eta "Enbido txikira" Elkarrekoa. Liburu txikiak eta laburrak dira, plaiako arratsalde batetan irakurtzeko modu-koak, baina horrek ez du esan nahi literarioki txikiak direnik. Bertan autore euskaldunak eta Milabidairen kasuan autore klasiko erdaldunak ere aurkituko dituzu. Besteak beste honako hauek aurkituko dituzue Udal liburutegian:

- Paulov-en txakurrak / Harkaitz Cano
- Radiobiografiak / Harkaitz Cano
- Bihotzerre / Patxi Zubizarreta
- Hemen datzana da / Edorta Jimenez
- Alajaineta / Hasier Etxeberria
- Bihotz simplea / Flaubert
- Ipuinak / Kafka
- Dickens atsegin zuen gizona / E. Waugh
- Babiloniara itzultzea / Scott Fitzgerald
- Matriuska / Inazio Mujika Iraola.

Joseba Lopez de Armentia

17
eguna**ARETXAGAZETAKO EZ-OHIKO
BATZARRA**

Gaia: Aretxagazetako estatutuen aldaketa, komunikabide berriei atak zabaltzeko.

Arratsaldeko 7etan udaletxeko pleno aretoan.

18, 19, 20

PORTASOLEKO JAIK

Besteak beste honako ekintzak antolatu dira Portasoleko jaietarako: sokamuturra, Gipuzkoako lehenengo kontzertu elektronikoa, "Hermanas Ross" taldea, xake txapelketa...

PAGLE, Portasol auzoko gazte lagun elkarte arduratu da jaien antolakuntzaz.

**PEDRO GUENETXEA
MEMORIALA**

Uztailaren 5an, zapatua. Arratsaldeko 4etan hasita Durana kalean.

UDA txirrundulari elkar-teak antolatuta.

**Bekak****JUSTO GARATE ARRIOLA
BEKA 97**

Bergarako Udalak giza-zientzien alorrean ikertzaile gazteen artean ikerketa lantzeko asmoz Justo Garate Arriola jakintsu bergararraren omenez, urtero Ikerketa-Beka ematen du. 1997ko deialdia filologiari zuzendua egongo da.

Epea: Eske idazkiak aurkezteko epea irailaren 1etik 30era. Bekaren iraupena 11 hilabetetako. Informazioa Bergarako Udalean.

Ikastaroak**UDAKO KIROL ESKOLA**

Kirolari, monitore eta entrenatzaileen-dako. Kirolari eta entrenatzaileentzat: futbola, pelota eta eskubaloia. Irakasle eta eskola kiroleko monitoreentzako: erreziklaia. Uztailaren 14tik 18ra.

Deba Bailerako Euskara eta Kirol zerbitzuaren eskutik. Informazioa eta izena ematea: Ipurua kiroldegian. Tfnoa: 970 41 56 22.

**BEHARREZKO****Aretxabaleta**

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otorora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

ARETXABALETA**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA**ITURGINTZA**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Mondeo DA

NAGUSITASUNA



Norbere kontroletik ihes egiten duten egoerak daude. Horregatik Mondeo berriarentzat alboko airbags-ak diseinatu ditugu. Baina hori ez da Mondeo berriak babesteko egiten duen guztia. Ziurtasunean harantzago doa.

Estruktura integrala, deformazio guneekin eta aurrealde barra indartzailearekin. ABS balaztatze elektroniko banaketarekin edo ABS trakzio kontrolaz. Aurrealdeko suspentsio independentea eta atzealdeko Quadralink suspentsio sistema. Segurtasun uhal ainguraketa eta pretensoreduna.

Udako oferta berezia

2.426.000 pta.tik aurrera

MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel: 79 07 44 / 54
Faxa: 79 62 54



KIA KIA MOTORS

**Ekainetik aurrera, Deba Garaiko
zerbitzu ofiziala ARRASATEN duzu**



HONDA
AUTOMOBILAK

MENDIOLA

Araba etorbidea, ARRASATE
Tf. 79 20 30